

DANTZA

“HARTZEA  
EMATEA DA!!!”

**IKASLE GOIZA!**  
ZUREA EMAN ETA  
**APAINDU STAND-AK**

59. DURANGOKO AZOKA



# ZER EGINGO DUGU?

Abenduaren 5ean, ostegunez, ekintzetatik kanpo gelditzen diren ikasleek aukera izango dute EuskarAbenturako jaimara hurbildu eta **sormen dinamika batean murgiltzeko**.

Dinamikak 59. Durangoko Azokarako erabiliko den leloa izango du ardatz. EuskarAbentura Elkarateak urtero bezala postu bat montatzen du azokako kanpoaldean Durangoko Azokakoekin elkarlanean. Laburpen gisa, EuskarAbentura Elkarateak EuskarAbentura espedizioa abiarazten du urtero, eta 15-17 urte bitarteko gazteak Euskal Herria luze eta zabal zeharkatzera eramaten ditu oinez eta euskara hutsean.

## AZALPENA

**Sormenez betetako mural sortze dinamika librean izango da.**

Mural horren sorkuntzan, azokan parte hartu duten sortzaileak izango dira abiapuntu eta beraz inspirazio iturri. Era horretan, ikasleek haiengandik jasotakoa islatu beharko dute beraien muraletan.

Muralen sorkuntza teknika librean egingo da, hau da, edukia aukeratzeko askatasun osoa izango dute ikasleek (irudiekin, testuduna, irudi zein testuduna...). Hala ere, baldintza bakar bat izango dute sorkuntza prozesuari dagokionez; euskara hutsean sortzea.

Horretarako, interesa duten ikasleak EuskarAbenturako jaimara hurbildu beharko dira. Sortutako muralak aukeratutako sortzaile erreferentiei emango zaizkie ikasle/talde sortzaileen sinadurarekin.

# JARRAIBIDEAK

**EuskarAbenturako jaimara hurbildu goizean zehar informazioa eta materiala eskuratzeko:**

1. Azokara sartu eta sortzaileak behatu eta ezagutu.
2. Ideiak hartu eta aukeratu sortzaile bat
3. Muralaren sorkuntzari ekin
4. Murala amaitutakoan sinatu eta EuskarAbenturako jaiman erakutsi
5. Sortzaileei eraman eta azaldu egindakoa
6. Argazkia (Sare sozialetan publikatzen baduzue erabili #Ikaslegoiza #59DA traolak eta etiketatu @durangoko\_azoka)

# MATERIALA

**Ikasleek ekarri beharko dute murala sortzeko behar izango duten materiala (irudiak, margoak, errotulkiak...).**

Durangoko Azokatik muralerako tamaina handiko orri bat baino ez zaie emango, eta hau EuskarAbenturako kideek emango diete goizean zehar (jaiman).

# IZEN EMATEA

**Ez da beharrezkoa izango aurretiaz izena ematea, goizean bertan EuskarAbenturako jaimara hurbiltzearekin nahikoa izango da.**

EuskarAbentura jaimara hurbiltzean ondorengo datuak hartuko dizkiegu:

1. Taldearen izena:
2. Kide kopurua:
3. Ikastetxearen izena:
4. Ikastetxearen kokapena: